



## KIRURGIA ORTOPEDIKO AMBULATORIOA PRESTATZEA

Hurrengo ebakuntza kirurgikoa dela eta, honako **INFORMAZIO GARRANTZITSU** honi kasu egiteko eskatzen dizugu:

- Ospitaleko Harrera Zerbitzuak aldez aurretik jakinaraziko dizkizu ospitaleratzearen eta ebakuntzaren eguna eta ordua.
- ***Ebakuntzaren AURREKO EGUNETARAKO gomendioak:***
  - Sukarra, hotzeria edo-eta kirurgia eragotziko lukeen osasun-okertzeren bat baduzu, jarri harremanetan Programazio Kirurgikoko Zerbitzuarekin, Tel. 945 007 960.
  - **Antikoagulanteen/Antiagregatzaileen** tratamendua hartzen ari bazara (Sintrom®, Adiro®, Aspirina®, Plavix®, Clopidogrel®...), jarraitu medikuak adierazitako jarraibideari.
- ***Gomendioak ebakuntzaren EGUNERAKO:***
  - Onarpen Zerbitzuan sartzeko adierazitako **egunean eta orduan** joango zara (ate nagusia).
  - **EZ AHAZTU** eskatzen zaizun **DOKUMENTAZIOA EKARTZEA**: sarrera-agiria, baldin badaukazu, NANA eta Osasun-txartela.
  - Ekarri normalean hartzen duzun medikazioa.
  - Garbitu behar bezala zeure burua (dutxa); infekzio-arriskua murrizten baitu.
  - **EZ EKARRI**: azazkalak margotuta, ez erlojurik, ez bitxirik, ez makillajerik.
  - **EKARRI**: hortzordeak edo audifonoa baldin badituzu.
  - Itxaron zerrenda sartzen zaren une beretik, **makuluak eta oinetako ortopedikoak EKAR ITZAZU**, traumatologoak hala aginduz gero.
  - **EZINBESTEKOA DA BAKARRIK EZ ETORTZEA**, etxera eramaten lagundu ahal izateko, lehenengo 24 orduetan. Etxerako buelta antolatuta eduki behar duzu (auto partikularra, taxia, etab.).



#### Ebakuntza *GOIZEZ bada:*

- Ospitaleratu aurreko gauean afari arin bat hartu ahal izango duzu 24:00ak baino lehen; ondoren, ura hartu ahal izango duzu soilik, ospitaleratu baino 2 ordu lehenago arte.
- Ez eten zure ohiko medikazioa, **zirujauak edo anestesioologoak berariaz adierazi ezean.**
- **Antikoagulatzailen/antiagregatzaileen** tratamendua hartzen ari bazara (Sintrom®, Pradaxa®, Xarelto®, Clopidogrel®...), **jarraitu medikuak adierazitako jarraibideari.**
- **Eta diabetikoa bazara**, jarraitu zure medikuak ebakuntzaren aurretik emandako gomendioei, guk ospitalean tratatuko dugu zure diabetesa.

#### Ebakuntza *ARRATSALDEZ bada:*

- Gosari arin bat har dezakezu 09:00ak baino lehen; ondoren, ura bakarrik hartu ahal izango duzu, ospitaleratu baino 2 ordu lehenago arte.
- Ez eten zure ohiko medikazioa, **zirujauak edo anestesioologoak berariaz adierazi ezean.**
- **Antikoagulatzailen/antiagregatzaileen** tratamendua hartzen ari bazara (Sintrom®, Pradaxa®, Xarelto®, Clopidogrel®...), **jarraitu medikuak adierazitako jarraibideari.**
- **Eta diabetikoa bazara**, jarraitu zure medikuak ebakuntzaren aurretik ematen dizkizun gomendioak, guk ospitalean tratatuko dugu zure diabetesa.